

KREDITU ERAKUNDEEN GORDAILUEN BERME FONDOA

Kutxabank Kreditu Erakundeen Gordailuen Berme Fondora (FGDEC) atxikita dago, eta hona hemen dagozkion datuak:

- Helbidea: K/ José Ortega y Gasset, 22 – 5. solairua, 28006 Madril
- Telefonoa: +34 91 431 66 45 - Fax: +34 91 575 57 28
- Helbidea Interneten: www.fgd.es
- E-posta: fogade@fgd.es

Kreditu Erakundeen Gordailuen Berme Fondoari ezar dakioken legedia.

- Urriaren 14ko 16/2011 Errege Lege-dekretua, Kreditu Erakundeen Gordailuen Berme Fondoa sortzeko egina. Testu bateratua da eta jarraian adierazitakoek sartutako aldaketak jasotzen ditu:
 - a. Ekainaren 18ko 11/2015 Legearen Hamargarren Azken Xedapena, kreditu erakundeen eta inbertsio-zerbitzuen enpresen berreskurapena eta ebazpenari buruz.
 - b. Ekainaren 26ko 10/2014 Legearen Bederatzigarren Azken Xedapena, kreditu erakundeen ordenamendua, gainbegiratzea eta kaudimenari buruz.
 - c. Azaroaren 14ko 9/2012 Legearen Zortzigarren Azken Xedapena, kreditu erakundeen berregituratze eta ebazpenari buruz.
 - d. Otsailaren 3ko 2/2012 Errege Lege-dekretuaren Laugarren Azken Xedapena, finantza-sistemaren saneamenduari buruz.
 - e. Abenduaren 2ko 19/2011 Errege Lege-dekretuaren, Kreditu Erakundeen Gordailuen Berme Fondoa sortzeko egina den urriaren 14ko 16/2011 Errege Lege-dekretua aldatzen duena.
- Ekainaren 18ko 11/2015 Legea, kreditu erakundeen eta inbertsio-zerbitzuen enpresen berreskurapena eta ebazpenari buruz.
- Otsailaren 13ko 84/2015 Errege Dekretuaren Seigarren Xedapen Gehigarria, kreditu erakundeen ordenamendua, gainbegiratzea eta kaudimenari buruzkoa ekainaren 16ko 10/2014 Legea garatzen duena (Atxikitako erakundeen ordezkariak Gordailuen Berme Fondoaren Batzorde Kudeatzailean).
- Azaroaren 14ko 9/2012 Legea, kreditu erakundeen berregituratze eta ebazpenari buruz.
- Uztailaren 13ko 21/2012 Errege Lege-dekretuaren Bosgarren Xedapen Gehigarria, Administrazio Publikoen eta finantza eremuaren likidezia neurriari buruz.
- Abenduaren 20ko data duen 2606/1996 Errege Dekretua, Kreditu Erakundeen Gordailuen Berme Fondoaren Araubideari buruz.
- Espainiako bankuaren irailaren 24ko 4/2001 zirkularra, ekarpenen kalkulu-oinarriari buruz.
- Maiatzaren 25eko 13/1985 legearen 8.3.d) ARTIKULUA, inbertsio koefizienteei, norberaren baliabideei eta finantza-bitartekarien informazio betebeharreari buruz.
- Maiatzaren 14ko 628/2010 Errege-dekretua, abenduaren 20ko 2606/1996 Errege-dekretua aldatzen duena, kreditu erakundeetan Kreditu Erakundeen Gordailuen Berme Fondoei buruz eta abuztuaren 3ko y 948/2001 Errege-dekretua, inbertsiogileen indemnitazio sistemei buruz.
- Otsailaren 18ko 2/2011 Errege Lege-dekretuaren, finantza-sistema indartzeko.



- Europako Parlamentuaren maiatzaren 30eko 94/19/CE zuzentaraua.
- Europako Parlamentuaren martxoaren 3ko 97/9/CE zuzentaraua.
- Europako Parlamentuaren martxoaren 11ko 2009/14/CE zuzentaraua.
- Europako Parlamentuaren 2014/49/UE zuzentaraua, eta 2014ko apirilaren 16ko Kontseiluarena, gordailuen berme-sistemei buruz.

Fondoak kreditu erakundeetan dirutan eta baloretan edo beste finantza-tresna batzuetan eraturako gordailuak bermatzea du helburu, 100.000 euroko mugaz dirutan eraturako gordailuetarako edo, beste dibisa batean izendatutako gordailuen kasuan, bere baliokidea dagozkion truke-tasak ezarrita, eta 100.000 eurokoa kreditu-erakunde baten esku baloreak edo beste finantza-tresna batzuk utzi dituzten inbertsiogileentzat.

DIRU-GORDAILUAK ETA BALORE BERMATUAK/EZ BERMATUAK

1. Gordailu onargarri izango dira kontuan mantentzen diren saldo hartzekodunak, erakundeak ezargarriak diren legezko eta kontratu baldintzetan itzuli behar dituen trafiko eragiketetatik aldi baterako egoeretatik datozen fondoak barne, edozein monetatan izendatuta izanda ere, eta beti ere, Espainian eraturak badaude edo Europar batasuneko beste Estaturen batean, baita epe finkorako gordailuak eta aurrezki gordailuak ere. 2606/1996 EDren 7. artikuluan ezarritako estaldura-mailak gainditzen ez duen gordailu hauen atala gordailu bermatuak izango dira.

Goiko paragrafoan aipatzen diren aldi baterako egoeretatik datozen fondoen artean, edozein kasutan, inbertsio-zerbitzuren bat egiteko erakundearen esku utzi diren diru-baliabideak ere sartuko dira, Balore Merkatuaren Legearen testu baginaren arabera, edo zerbitzu edo jarduera horiek ematek datorrena.

Errege dekretu horren ondorioetarako ez dira gordailuak izango honako baldintza hauetarikoren bat duten saldo hartzekodunak:

- a) Euren existentzia urriaren 23ko 4/205 Legegintzako Errege Dekretuak ozartutako Balore Merkatuko Legearen testu bateratuaren 2. artikuluan aurreikusitako finantza-tresna baten bidez baino ezin proba daiteke. Ez dute, beraz, gordailu izena aktiboan aldi baterako lagapenek ezta eramailearentzako gordailu ziurtagirik ere.
 - b) Printzipala bere balio nominalean itzultzeko modukoa ez bada.
 - c) Printzipala bere balio nominalean itzultzeko modukoa bada, baina kreditu erakundearen edo hirugarren baten berme batez edo akordio berezi batez baino ez.
2. Errege Dekretu honen ondorioetarako, balio bermatuak izango dira Balore Merkatuko Legearen 2. artikuluan aurreikusitako balore negoziagarriak eta finantza-tresnak, kreditu erakundearen esku Espainian edo beste edozein herrialdeetan utzi badira, gordailutzeko edo erregistratzeko edo inbertsio-zerbitzuren bat burutzeko. Balore bermatuen artean sartuko dira, edozein kasutan, aldi baterako laga direnak eta erakunde lagatzailean idatzita edo erregistratuta jarraitzen dutenak.

Ez dute bermerik izango, indarrean dagoen legediaren arabera paradisu fiskal definizioa duten herrialdeetan edo balore merkatuen erakunde gainbegiratzailerik ez duen herrialde batean, edo izanik ere, ez badu informazio trukerik egiten Balore Merkatuko Batzorde Nazionalarekin, inbertsio-zerbitzuak eta jarduera osagarriak burutzeko, kreditu erakundearen esku utzi diren balore eta finantza-tresnek.

Azken balizko honetan dauden herrialdeak edo lurraldeak Ekonomia Ministerioak zehaztuko ditu, Balore Merkatuko Batzorde Nazionalaren ekimenez.

Espainolen baliokide diren inbertsiogileen indemnizazio-sistema nazionalak dituzten herrialde ez komunitarioetan dauden Espainiako kreditu erakundeen bulegoen eskuetan utzitako baloreek eta finantza-tresnek ere ez dute bermerik izango.

3. Aurreko ataletan inbertsio-zerbitzuetarako edo gordailu jardueretarako edo baloreen erregistrorako aipatutako bermeari dagokionez, 2606/1996 Errege Dekretuko 8.2 artikuluan aurreikusitako egoeren ondorioz kaltetutako inbertsiogileari dagozkion baloreen edo tresnen ez itzultzea estaliko dute fondoek. Balizko honetan, ezein kasutan ez da estaliko inbertsioaren balio-galerarik edo edozein kreditu-arrisku.
4. Ez da gordailu onargarriak izango, 2606/1996 Errege Dekretuaren ondorioetarako eta, ondorioz, Kreditu Erakundeen Gordailuen Berme Fondoan estalduratik kanpo egongo dira:
 - a) Beste kreditu erakunde batzuek haien kontura eta haien izenean egindako gordailuak, baita jarraian adierazitako subjektuek eta finantza erakundeek egindakoek ere:
 1. Balore sozietateek eta agentziek.
 2. Erakunde aseguratzaileek.
 3. Higiezinaren arloko inbertsioetarako sozietateak.
 4. Inbertsio kolektiboko erakundeen sozietate kudeatzaileek, baita pentsio-fondoan, titulizazio-fondoan eta kapital-arrisku fondoan sozietate kudeatzaileek, eta erakunde kudeatzaileen gordailuak.
 5. Zorroen sozietate kudeatzaileek eta finantza aholkularitza enpresak.
 6. Kapital-arrisku sozietateak eta horiei dagozkien sozietate kudeatzaileak.
 7. Europako Parlamentuaren eta 2013ko ekainaren 26ko Kontseiluaren (EB) 575/2013 zenbakia Araudiaren 4.1.26) artikuluan definitutako beste edozein sozietate.
 - b) Erakundearen fondo propioak, Europako Parlamentuaren eta 2013ko ekainaren 26ko Kontseiluaren (EB) 575/2013 zenbakia Araudiaren 4.1.118 artikulua definizioaren arabera, zein zenbatekotan hartu diren aintzat alde batera utzita.
 - c) Kreditu erakundeak jaulkitako zorra ordezkatzan duten baloreak, ordaindukoak eta efektu negoziagarriak barne.
 - d) Titularra identifikatu gabea duten gordailuak, kapital zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren prebentzioari buruzko apirilaren 28ko 10/2010 Legean xedatutakoaren arabera, edo jatorria kapital zuriketarengatik kondena zigor-epaia duten eragiketetan duten gordailuak.
 - e) Administrazio Publikoek erakundearen eraturako gordailuak, 500.000 euro edo hortik beherako urteko aurrekontua duten tokiko erakundeek eraturakoak izan ezik.

Ez dira balore bermatuak izango, errege dekretu honen ondorioetarako, goiko a) eta e) paragrafoetan aipatutako pertsonak titular dituztenak.
5. Era berean, eta ekarpenak zenbatzeko aintzat hartuak izan daitezkeen kalterik gabe, zenbateko bermatuak ordaintzeko betebeharrak ez ditu barne hartuko jarraian adierazitako eran eratu direnak:
 - a) Indarrean dauden xedapenak hautsita, bereziki, kapital zuriketaren eragiketen ondorioz zigor-epaia jaso duten eragiketetan sortutakoak.
 - b) Pertsonalki, erakundearen egoera larriagotzen lagundu duten finantza-baldintzak lortu dituzten bezeroek eraturak, beti ere, egoera hori epai irmoak zehaztu duen kasuetan.

- c) Goiko atalean nahiz atal honetan azaldutakoaren kariaz baztertuak izan diren gordailugileen izenean diharduten pertsonak, edo goiko a) eta b) paragrafoetan aipatutakoekin itunduta.
6. Hala ere, 2606/1996 Errege Dekretuaren 9.1 artikuluan zehaztutako epealdiak, Batzorde Kudeatzailearen iritziz, gordailugileren batek indemnitzatzeko betebeharra eragin duten arrazoiekin hartu-eman edo partaidetza duela antzematea ahalbidetzen duten inguruabarrak badaude, dagozkion indemnizazioen ordainketa eten daiteke, aipatutako hartu-eman edo partaidetza hori ez dagoela epai bidez argitu arte, alderdi batek hala eskatuta. Fondoek ahalmen bera izango dute, gordailugile batek edo gordailu baten gainean eskubidea edo interesa duen beste edozein pertsona auzipetua izan bada, edo kapital zuriketarekin zerikusia duten delituengatik ahozko epaiketa irekitzea erabaki bada, Judiziamendu Kriminalari buruzko Legearen IV. Liburuko III. Tituluan arautzen den prozedura laburtuari hasiera eman bazaio eta prozedura bukatu arte.

Atal honetan eta aurrekoan xedatutakoa ezarriko zaie, era berean, balore bermatuen titularrei.

BERMEA BETEARAZTEKO ARRAZOIAK

1. Gordailuen berme-atalaren kontura den Fondoak, gordailuen zenbateko bermatua ordainduko die beren titularrei, honako gertakizun hauetakoren bat gertatzen denean:
- a) Erakundea hartzekodunen konkurtsoan dagoenean edo judizialki eskatuta dagoenean hartzekodunen konkurtso aitortza hori izatea.
 - b) Goiko atalean zehaztu denaren arabera erakundearen konkurtsoa aitortu ez denean, baina muga eguneratutako eta galdagarriak diren gordailuen ez-ordaintzea gertatu denean, Espainiako Bankuak zehaztea, bere iritziz eta erakundearen finantza egoeratik zuzenean eratorritako arrazoiengatik, erakundearentzat ezinezkoa denean itzultzea eta epe laburrean egiteko aukera izatea zaila denean. Espainiako Bankuak, Fondoaren batzorde kudeatzailea entzun ostean, ahalik eta lasterren ebatzi beharko du eta, beranduenik, muga eguneratutako eta galdagarriak diren gordailuak itzultzea lortu ez duela lehenengo aldiz egiaztatu eta hurrengo bost lanegunetan, erakundeak esan behar duena entzun ostean, beti ere, zehaztutako epealdia eten barik.
2. Baloreen berme-atalaren kontura den Fondoak, estalgarriak diren baloreen eta finantza-tresnen zenbateko bermatua ordainduko die beren titularrei, honako gertakizun hauetakoren bat gertatzen denean:
- a) Kreditu erakundearen konkurtsoa aitortzen duen epaia dagoenean eta egoera horrek baloreen eta finantza-tresnen itzulketa etetea badakar; hala ere, ez dira zenbateko horiek ordainduko, ordaintzeko epealdiari ekiteko aurreikusitako epealdian, aipatutako etenaldia bukatuko balitz.
 - b) Espainiako Bankuak aitortzen dezala kreditu erakundeak ezin dituela inbertsiogileekin hartutako obligazioak bete, Espainiako Bankuak berak jakin dituen gertakizunen arabera eta erakundearen finantza egoerarekin zerikusi zuzena arrazoiengatik.

Espainiako Bankuak aitortzen hori egin dezan, beharrezkoa izango da honako inguruabar hauek gerta daitezela:



- a) Inbertsiogileak kreditu erakundeari bere eskuetan utzi zituen baloreen eta finantza-tresnen itzulketa eskatu izana eta erakundearen aldetik erantzunik jaso ez izana hogeita bat laneguneko gehieneko epean.
 - b) Kreditu erakundea ez izatea artikuluko honetako 1. ataleko a) paragrafoan aurreikusitako egoeran.
 - c) Aldez aurretik entzun dadila kreditu erakundeak zer esan nahi duen.
3. Arazoa duen erakundea egoitza soziala Europar Batasuneko beste Estatu batean duen kreditu erakunde baten bulegoa bada, ez-betetze aitortza Estatu horretan ahalordea duen agintearen lankidetzaz hartuko da.

AINTZAT HARTU BEHARREKO BESTE ZENBAIT KONTU

- Erakundearekiko zorrak balitu, zor horiek aintzat hartuko dira zenbateko bermatua kalkulatzeko orduan, kreditu erakundearen gordailuen berme-fondoei buruzko abenduaren 20ko 2606/1996 Errege Dekretuaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bermearen mugei buruzko alderdiak, bermatutako zenbatekoaren irismena, bermea egikaritzeko arrazoia eta ordainketa baldintzak eta horien ondorioak, kreditu erakundearen gordailuen berme-fondoei buruzko abenduaren 20ko 2606/1996 Errege Dekretuak arautzen ditu.

GORDAILUGILEENTZAKO INFORMAZIO INPRIMAKIA

Gordailuen estaldurari buruzko oinarriko informazioa		
Kutxabanken dauden gordailuak honako hauek bermatzen dituzte	Kreditu Erakundearen Gordailuen Berme Fondoa (1)	
Estalduraren muga	100.000 euro gordailugileko eta kreditu erakunde bakoitzeko (2)	
Kreditu erakunde berean gordailu gehiago baduzu:	Kreditu erakunde berean dituzun gordailu guztiak batuko dira eta orotarako kopurua 100.000 euroko mugaren pean dago (2).	
Beste pertsona batekin edo batzuekin partekatutako konturik baduzu:	100.000 euroko muga gordailugile bakoitzari ezartzen zaio, bakoitzari bere aldetik (3).	
Itzulketa epealdia, kreditu erakundearen konkurtsorik balego: (4)	Aintzat hartutako epealdia	Ordainketa epealdia
	2018/12/31 arte	20 lanegun
	2019/01/01etik 2020/12/31ra	15 lanegun
	2021/01/01etik 2023/12/31ra	10 lanegun
	Aurrerantzean	7 lanegun
Itzulketa zein monetetan egingo den:	Eurotan	
Hartu-emanetarako:	Fondoaren egoitza: K/ José Ortega y Gasset, 22-5. solairua, 28006 Madril Hartu-emanetarako fondoaren telefono zenbakia : +34 91 4316645 E-posta: fogade@fgd.es	
Informazio gehiago nahi izanez gero:	www.fgd.es	

Gordailugilearen hartu-agiria:

Informazio gehigarria:

(1) Zure gordailuaren estalduraren erantzulea den sistema.

Zure gordailua Gordailuen Berme Sistema batek bermatuta dago, lege xedapenez eta kontratu Gordailuen Berme Sistemak sortua. Zure kreditu erakunde kaudimen-gabea balitz, edozein modutan ere zure gordailua itzuliko zaizu 100.000 euroraino.

(2) Babesaren muga orokorra.

Gordailuren bat erabiltzerik ez bazenu, kreditu erakunderen batek ezin dituelako bere finantza betebeharrak bete, Gordailuen Berme Sistema batek itzuliko die gordailugileei. Itzulketa 100.000 eurokoa izango da gehien jota kreditu erakunde bakoitzeko. Horrek esan nahi du erakunde berean egindako gordailu guztiak batzen direla, estaldura-maila zehazteko. Adibidez, gordailugile batek 90.000 euroko aurrezki-kontua eta 20.000 euroko kontu korrantea baditu, 100.000 euro baino ez zaio itzuliko.

3) Partaidetzako kontuetarako babes muga.

Partaidetza kontuen kasuan, 100.000 euroko muga gordailugile bakoitzari ezarriko zaio.



Hala ere, sozietate, elkarte edo izaera juridikorik ez duen antzeko beste edozein taldetako bazkide edo kide diren aldetik, kontu baten ganean pertsona bik edo gehiagok badituzte eskubideak eta kontu horretan gordailuak badaude, gordailugile bakar batek egin izan balitu bezala gehitzen eta tratatzen dira, 100.000 euroko muga kalkulatzeko ondorioetarako.

(4) Diru-itzulketa.

Erantzukizuna duen gordailuen berme-sistema Kreditu Erakundearen Gordailuen Berme Fondoa da. Fondoaren egoitza: K/ José Ortega y Gasset, 22-5. solairua, 28006 Madril. Fondoaren hartu-emanetarako telefono zenbakia: +34 91 431 66 45. E-posta: fogade@fgd.es.

Zure gordailuak itzuliko dizkizu (100 000 EUR arte, gehien jota) aurreko taulan zehaztu diren epeen arabera, beranduenik, eta 2023ko abenduaren 31tik aurrera 7 laneguneko epealdian.

7 laneguneko epealdian ezein kopuru eskuratzetik izan ez bada, gordailuen berme-sistemarekin harremanetan jarri behar duzu, diru-itzulketa eskatzeko dagoen epealdia mugatua izan daiteke eta. Informazio gehiago nahi izanez gero, begira ezazu www.fgd.es.

Bestelako informazio esanguratsua.

Oro har, gordailugile txikizkari guztiak eta enpresak gordailuen berme-sistemek estalita daude. Zenbait gordailuri ezar dakizkiokeen salbuespenak erantzukizuna duen gordailuen berme-sistemaren webgunean kontsulta daitezke. Zure kreditu erakundeak ere jakinaraziko dizu, hala eskatzen baduzu, zein produktuk duen estaldura eta zeinek ez. Gordailuak estalita badaude, kontuaren laburpenetan ere baieztatuko dizu kreditu erakundeak.